

Intxaurrondo

Auzo kantuzalea

Hirugarren urtez, Intxaurrondo Zaharreko Bizilagunen Elkartearen eta Donostia Kulturaren ekimenez, euskal kantuei buruzko ikastaroa egingo da auzoan. Aste-ro Larrotxene kultur etxean kantuak ikasi ahal izango dituzte parte hartzaileek.

I ZBE-k eta Donostia Kulturak antolatutako ikastaroa euskaraz, edo euskaraz eta gazteleraz, egin ahal izango da. Euskarazkoa azaroaren 11n hasiko da eta izena ematen dutenak astelehenero elkartuko dira, maiatzaren 26a bitartean. Bestalde, elebitan egitekoa den ikastaroa azaroaren 13an hasiko da eta asteazkeneko egingo da. Ikastarook Larrotxene kultur etxean izango dira 20.00etatik 21.30era.

Egitasmoak irauten duen bitartean, gitarra jotzen eta abesten dakien lagun baten gidaritzapean, parte hartzaileek hainbat kantu landuko dituzte. IZBEko kide Joserra Belokik aipatu digunez, "jorratzen diren kantu batzuk tradizionak dira; beste batzuk, ordea, berriagoak. Baina, hori bai, guztiak herriak bere egin ditu". Asteroko bileretan, abestien letrak banatzeaz gain, letrak zer esan nahi duten azal-

du ohi da eta, noiz edo noiz, abestiaren inguruko hainbat zertzelada ere ematen dira, hala nola, egileari edota istorioari buruzko xehetasunak.

Helburua ondo pasatzea

Duela bi urte hasi zen egiten Euskal kantu ikastaroa eta harrera ona izan du orain arte. Izan ere, 70 bat lagunek parte hartu dute ikasturte bakoitzean. Egitasmoaren helburuari dagokionez, "ez du gu abesba-

tza bat sortu nahi. Hortaz, abestea gustuko duen edonork parte har dezake. Ekimen honen funtsezko helbururak bi dira: taldean abesten gozatzeta eta hainbat euskal kantu buruz ikastea", dio Belokik.

Bestalde, kultur etxeko asteroko saiok ez ezik, beste hainbat ekitaldi ere egiten direla gogorarazi digu Belokik: "Ikasturtean bizpahiru kalejira egiten ditugu eta noizbehinka afariak ere antolatzen ditugu ikasitakoa prakti-

kan jartzeko, abesteko ale-gia".

Ikastaroan parte hartu nahi duzuenok Larrotxene kultur etxera jo besterik ez duzue. Izena emateko epea azaroaren 7a arte dago zabalik eta ikastaroaren prezioa 22 euro da (11 langabetuentzat).

Poesia irakurketa

Hilaren 25ean, ostirala, Julia Otxoak eta Eli Tolaretxipik poesia emanaldia eskainiko dute Estudio Arten (Zubiaurre pasealakea 78b). Emanaldia 19.30ean hasiko da.

Izena emateko epea azaroaren 7a arte dago zabalik



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti

gizarte ekintza
obra social